BAKEA
PAZ

# Historia josiz
# Historias zurcidas

**ITSASORATZE ARTIBISTA** EMBARCADA ARTIVISTA TOPAKETA / ERAKUSKETA ENCUENTRO / EXPOSICIÓN Donostia, Bilbao, Gernika Ekainaren 12 ra arte Hasta el 12 de junio Gernika Gogoratuz, Gernikako Bakearen Museoa Gernika Gogoratuz, Museo de la Paz de Gernika # #ItsasoratzeArtibista #EmbarcadaArtivista itsasoratzeartibista.dss2016.eu embarcadaartivista.dss2016.eu @BakeaPaz2016



*Roberta Bacic, erakusketaren kuradorea. Roberta Bacic, curadora de la exposición.*

Bakearen Itsasargiak otsail amaieran Arpillera-egileen Nazioarteko Topaketa hartuko du; Gernikako Bakearen Aldeko Aztertegiaren, Bakearen Museoaren eta Conflict Textiles-en arteko lankidetzaren emaitza. *Arpillera* deitutakoak zaku-oihaletan jositako ehunezko irudiak dira: tradizionalki Txileko eta Peruko emakumeek oihal txatalak erabilita eguneroko eszenak irudikatzen zituzten arpilleretan. Conflict Textiles ekimeneko kide eta apirilean Donostiara iritsiko den erakusketaren kuradore Roberta Bacic-ek azaltzen du nola Txileko diktaduraren garaian emakume taldeak joste-lan horien bitartez bizi zuten gatazka latza islatzen hasi ziren, egoera mingarriari aterabidea emateko narrazio gisa.

Artisautzaren esparrutik irten eta arpilleren sorkuntza arte aktibistarako bide bilakatu zen eta emakumeen oinazea kolektiboan sozializatuta, gizartean erreakzioa bilatzen hasi ziren taldeak. Narratiba forma honek, gerora, munduko gatazka leku gehiagotara egin du jauzi, eta ekimen eraldatzaileari hedapena ematen zaio Textile Conflicts-en, erakusketa eta jarduerekin.

Arpillera egileen eta espezialisten nazioarteko topaketa otsailaren 25etik 28ra egingo da Bilbon, Donostian eta Gernikan. Gernikako Bakearen Museoan aurki daitekeen erakusketaren testuinguruan kokatua. Erakusketa bera apirilaren 14ean iritsiko da Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen etxera.

El Faro de la Paz acogerá a finales de febrero el Foro Internacional de Arpilleras, fruto de la colaboración del Centro de Investigación por la Paz Gernika Gogoratuz, la Fundación Museo de la Paz de Gernika y Conflict Textiles. Las arpilleras son piezas de arte textil creadas a base de retales de tela. Tradicionalmente, grupos de mujeres de Chile y Perú cosían escenas cotidianas sobre telas de saco, llamadas también arpilleras. Roberta Bacic, miembro de Conflict Textiles y curadora de la exposición que llegará a San Sebastián a mediados de abril, explica cómo durante la dictadura chilena las mujeres comenzaron a reflejar el conflicto en las arpilleras, narrando la dolorosa situación que padecían. De la artesanía, la creación de arpilleras pasó a convertirse en una forma de arte activista donde las mujeres, de forma colectiva, socializan el dolor del conflicto y buscan una reacción social. Esta narrativa, posteriormente, ha saltado a diferentes lugares donde se han vulnerado derechos humanos. Textile Conflicts promueve estas experiencias transformadoras por todo el mundo.

El encuentro internacional de arpilleras se celebrará del 25 al 28 de febrero en Bilbao, San Sebastián y Gernika, dentro del marco de la exposición se muestra en el Museo de la Paz de Gernika y que llegará el 14 de abril a La Casa de la Paz y los Derechos Humanos de Aiete.




No a las alzas / No a la dictadura / Basta de hambre *arpilleraren xehetasuna.*
*Detalle de la arpillera* No a las alzas / No a la dictadura / Basta de hambre.
ARGAZKIA/FOTO: COLIN PECK, © COPYRIGHT ROBERTA BACIC / CAIN CONFLICT TEXTILES

## DESAGERTUEN OIHAL TXATALAK
## LOS RETALES DE LOS DESAPARECIDOS

**«*No a las alzas / no a la dictadura / basta de hambre* arpillera (1980), Andeetako mendilerroan diktadura garaian egindakoetatik adierazgarrienetakoa da, bere ezaugarri guztiekin.**

**Erbesteratuen, desagertuen eta kartzelatuen emazteek egindakoa, arpillerok pairatzen zuten goseari aurre egiteko saldu egiten zituzten. Arpillera honek panpina txikiak dauzka josita, euren buruak irudikatzen dituztenak, eta protestaldi bateko benetako eszena bat ageri da oihalean. Arpillera hau egiteko, pijametako franela, zaku-oihala edo praketako ehunak erabili zituzten, desagertuen arropetakoak batzuk. Kolore biziak dira lan mota honen adierazle nagusia».**

«La arpillera *No a las alzas / no a la dictadura / basta de hambre* (1980) es una de las más representativas de la cordillera de los Andes creadas durante la dictadura chilena con todas sus características. Elaborada por mujeres que tenían a sus maridos exiliados, desaparecidos o presos, vendían estas arpilleras como forma de sustento ante el hambre que padecían. En esta aparecen los muñequitos que representan a ellas mismas en una escena real, portando una pancarta. Se empleó la franela de pijamas y tejidos de saco o pantalones que en algunos casos procedían de la ropa de los desaparecidos. El colorido es el representativo de estos trabajos».